

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Turismok 140.00 euro bideratuko ditu enpresa planak, azterketak eta diagnostikoen diru laguntzetarako

Tokiko entitate, merkataritza elkarte eta txikizkako merkataritzako zein turismo sektoreko ETEei daude bideratuta

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

Nafarroako Gobernuak gehienez 140.000 euroko diru-laguntza bideratu du, bakarkako ebaluazioaren erregimenean, merkataritza eta turismo arloan azterketak, planak eta analisiak egiteko. Hala onetsi du gaurko bilkuran. Diru-laguntza tokiko entitate, merkataritza elkarte eta txikizkako merkataritzako zein turismo sektoreko ETEei dago bideratuta.

Deialdi honen bitartez, Nafarroako Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko 2018-2020 planeko hainbat neurri garatuko dira. Plan horrek txikizkako merkataritzaren garapenean dagoen edozein ordezkarik (tokiko entitate, enpresa edo elkarte) antolatzen dituzten ekintzak garatu aurretik egoeraren diagnostikoa jasotzea aurreikusten du, hala ekintza horiek zehaztutako helburuak lor ditzaten.

Era berean, Nafarroako Turismoaren 2018-2025 Plan Estrategikoak baliabide turistikoaren kalitatea, jasagarritasuna eta irisgarritasuna hobetzeko xedez arloko enpresen ehuna lotzeko neurriak zehazten ditu. Plan horrek, gainera, sektoreko enpresen azterketa teknologikoa egiteko beharra jaso du.

Bide horretan, Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak, beharrezkotzat jo du "edozein entitatearen ekintzak eragingarriak egin daitezten antolaketa zuzena izatea". Zentzu horretan, eta onetsitako deialdiaren hurrengo tramitazioaren ostean, diagnostikoen bultzada egitea, eta era ezberdinetako entitateek sektorean burutzen dituzten ekintzen antolaketan planifikazioa proposatu ditu.